

Artikulu honen asmoa da euskal literaturan —eta bereziki poesiaren esparruan— sortu eta zabaldu diren aberriaren errepresentazio sinboliko zenbait identifikatu eta aztertzea. Aberriaren gaia euskal literatura garaikideko leit-motiv ezagunetako bat izanik, eta historia kulturalaren “emotional turn” joerak memoriari eman dion lehen tokia aintzat harturik, gure egile nagusiek berau errepresentatzeko erabilitako irudi eta sinboloen inguruan hausnartzea hartu dugu helburutzat. Aberriaren inguruko ikerketen ildo teorikoen oinarriak geure eremura ekarrita, Erromantizismoan eta XX. mendean zehar mamituriko irudikapen sinboliko nagusiak testuinguratu eta interpretatuko ditugu artikuluan zehar. Bestalde, aberriaren errepresentazioek erakusten duten garapen historikoa ere aztertu dugu, iradokitzen duten ikuskerari buruzko hausnarketarako abiapuntuak ezarriz.

Giltza-Hitzak: Aberria. Errepresentazio sinbolikoak. Euskal literatura. Historia.

Este artículo se propone analizar la identificación de las representaciones simbólicas de la patria creadas y difundidas en la literatura vasca, especialmente en el ámbito de la poesía. Siendo el tema de la patria uno de los leitmotiv de la literatura contemporánea, promovido por el “emotional turn” de la historia cultural y la predominancia de la memoria cultural como instrumento para la recuperación emocional de la misma, hemos revisado los textos de nuestros principales autores y las imágenes que han creado para representarlo. Trasladando a nuestro terreno las bases de las líneas teóricas de la memoria histórica, a lo largo del artículo contextualizaremos e interpretaremos las principales representaciones simbólicas desde el Romanticismo hasta el fin del siglo XX, analizando el desarrollo histórico de la representación de la patria y estableciendo los puntos de partida para la reflexión sobre la visión que sugieren.

Palabras Clave: Patria. Representación simbólica. Literatura vasca. Historia.

Cet article cherche à analyser l'identification des représentations symboliques de la patrie créées et diffusées dans la littérature basque, en particulier dans la sphère de la poésie. Le thème de la patrie étant l'un des leitmotivs de la littérature contemporaine, promu par « l'emotional turn » de l'histoire culturelle et la prédominance de la mémoire culturelle comme instrument de guérison émotionnelle, nous avons passé en revue les textes de nos principaux auteurs et les images qu'ils ont créées pour la représenter. En transférant à notre terrain les fondements des lignes théoriques de la mémoire historique, nous contextualiserons et interpréterons, tout au long de l'article, les principales représentations symboliques du romantisme à la fin du 20^{ème} siècle, en analysant le développement historique de la représentation de la patrie et en établissant les points de départ de la réflexion sur la vision qu'ils suggèrent.

Mots-Clés : Patrie. Représentation symbolique. Littérature basque. Histoire.

Aberri Minez Kantari: Aberriaren errepresentazio sinbolikoak euskal literaturan, Erromantizismotik XXI. mendera arte¹

(*Aberri minez kantari*. Symbolic representations of the homeland in Basque literature from Romanticism to the 21st century)

Otaegi Imaz, Lourdes

Euskal Herriko Unibertsitatea. Letren Fakultatea. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saila. Unibertsitateko ibilbidea, 5. 01006 – Vitoria-Gasteiz
lourdes.otaegui@ehu.eus

Gurrutxaga Muxika, Alexander

Euskal Herriko Unibertsitatea. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saila.
alex.gurrutxaga@gmail.com

Jasoa: 2022-12-26
Onartua: 2023-06-06

BIBLID [2952-4180 (2023), 68: 1]

¹ Artikulu hau “La literatura como documento histórico: historia, ideología y texto” izeneko proiektuaren baitan idatzia da (EHU, GIU21/003). Bestalde, gure eskerrik zintzoenak Anjel Lertxundiri, bere iradokizunengatik eta prestutasunagatik.

1. Lehen hurbilpena²

XIX. mendearen erdian, euskal literaturaren loraldiak bat egin zuen, hein handi batean, Europako Erromantizismo mugimenduak esparru guztietan izan zuen hedatze indartsuarekin. Eragin hori, hamarkada zenbait geroago izan arren, iritsi zen Euskal Herrira ere, eta sorkuntzaren esparru guztiak blaitu zituen: bai literatura, bai margolaritza, baita musika ere. Ez da badaezpadakoa historiografian onarpen erabatekoa duen *Pizkunde* (1876-1936) terminoa. Erromantizismoaren ikurretako bat herri-izpirituaz —*volksgeist* deiturikoaz— jabetzeko ahalegina izan zen, eta horrek, herri-kulturaren ondarea jasotzeari zegokionez emaitza eskergak lortzeaz gain, aberriaren gaineko kontsiderazio eta planteamendu ugari ere eragin zituen —nazionalismo politikoak barne—. Ez da harritzekoa, beraz, orduantxe haizeratzen ari zen euskal literatura garaikideak Erromantizismoaren ideiak bere egitea, aberriaren irudikapenak literatur proposamenen erdigunean jarriz. Are gehiago, esan liteke mugimendu zabal horren ideia nagusiek hartzigarri paregabea aurkitu zutela Hego Euskal Herrian garatzen jarraitzeko, non Gerra Karlistek eta haien ondorioz etorritako Foruen abolizioak (1876) galera sentimendu mingotsa eragin zuten. Harrezkerotik, lehen Modernismoko poeta nagusiek, Sabino Arana-Goiriren filosofia politikoaren eraginpean, euren poetiken gai zentral gisa eutsi zioten aberriaren errepresentazioari, eta joera horrek iraun egin zuen frankismoaren zapalkuntza urteetan ere (1936-1975). Azkenik, Postmodernitatearen uhin berriek, ezinbestean, aberriaren deseraikitze eta birplanteatze askotarikoak eragin dituzte Espainiako trantsizio garaitik gaur arte.

Horrela, bada, mende oso batez gutxienez, aberriaren inguruko gogoeta etenik gabea izan da euskal idazle eta, bereziki, poeta nagusiengan, eta kezka horiek irudikapen poetiko esanguratsuak sortu dituzte, batak besteari egindako erreferentzia metaliterarioetan oinarriturik eta, batez ere, euskaldunengan izandako onarpen zabalari esker.

Hurrengo lerroetan, aberriaren irudikapen esanguratsuenak berrikusiko ditugu, haiek markatzen duten ibilbidea aztertuz eta testuinguratuz. Besteak beste, eta euskal idazleak soilik aipatzearen, lerrootan aurkituko ditu irakurleak J. M. Iparragirre, G. A. Zaldubi, X. Lizardi, S. Mitxelena, G. Aresti, B. Atxaga, X. Lete, I. Borda, A. Lasa, J. Sarrionandia, K. Izagirre, O. Nabarro, K. Uribe, etab. Horretara baino lehen, ordea, ohar teoriko labur bat egin behar dugu aberriaren kontzepzioez eta beronen inguruko eztabaida nagusiez.

2. Ohar teoriko labur bat

Sarreran esan bezala, aberriaren kontzepzio tradizionalak Erromantizismo garaian loturik daude; Friederike Eiglerri jarraituz, “traditional notions of Heimat emerged in the late eighteenth and early nineteenth century and linked ethnic and cultural identity to a place of origin” (2014:13)³. Espainian, baina, ez da zalantzarik elkarrekin lehian sortu zirela nazioaren inguruko ikuspegi nagusiak. Labur esateko, batetik, estatuaren lurraldearen batasunean oinarrituriko espainiar kontzepzioa egongo litzateke; bestetik, berriz, bere mugak eta estatusa zehazteko zailtasunak izan dituzten abertzaletasunak.

² 2015ean eta 2017an, “Heimat-Bruch-Distanz” ikertaldeak (EHU) antolatutako *Raum-Gefühl-Heimat* izeneko Nazioarteko II. eta III. Jardunaldiak ditu abiapuntu azterlan honek. Ikus Otaegi & Gurrutxaga 2017.

³ Eigler eta Kugeleren arabera, “*Heimat* carries seemingly pre- or anti-modern connotations of social transparency and of rootedness in a place of origin and belonging. Yet this very notion of *Heimat* is of a decidedly modern ‘origin’, i.e., it emerged in the late 18th and early 19th centuries and registers longings, devises, and projections that, taken together, can be seen as a response to the social and political upheavals associated with modernity (Blickle)” (2012:2).

De Pablo eta Mees irakasleek (2012) azaldu duten moduan, Eric Hobsbawn (1992) eta Ernest Gellner (1983) ikertzaileek nazionalismoaren teoria konstruktibistak baliatu dituzte: “la nación es una creación moderna de los dos últimos siglos que emerge en el curso de transformación de la sociedad a causa de procesos como la industrialización, la secularización, la urbanización y la creación del Estado moderno” (De Pablo et al. 2012:26). Ildo honen arabera, beraz, nazioa *constructum* artifizial bat da, jende talde txiki batek —burgesek— erabilia bere interes propioak defendatzeko, eta gizataldeak asmo “nazional” baten bidez elkartzeko. Nolabait, Benedict Andersonek (1983) *imagined communities* izendatuarekin bat dator azalpen konstruktibista, hark ere esentzialtasun berezko bat ukatzen baitzion nazioari. Lerro berean kokatu beharko genituzke beste hainbat ikerketa ere, hala nola Anne-Marie Thiessek gauzatuak (1999), zeinak nazio identitate bat eraikitzekeo beharrezkoak izango liratekeen osagai euskarriak aztertu dituen.

Nazioa eraikuntza gisa aztertzen duten korrante horiek, ordea, nazio kontzeptua desakralizatzeko bidean, arriskua dute, elementu antropologiko eta etnografikoak arbuizatzeko helburuz, nazio identitateen eraikuntza errezeta bat edo instrukzio gida bat bailitzan tratatzeko. Hain zuzen, Anthony Smith historiagile ingelesak hainbat zuzenketa proposatu ditu erreten horretan ez erortzeko, azpimarratuz, batez ere, inongo “nazio imajinatu”k ez lukeela arrakasta txikienik ere lortuko, baldin eta lehendik ez balego oinarrizko ezaugarri etno-kultural batzuk partekatzen dituen komunitate bat. Smithen arabera (1986:37⁴), gutxi-asko definitua den talde batek bere burua nazio moderno gisa definitu dezan, beharrezkoa da, batetik, iraganaren oroimen kolektibo bat partekatzea, eta, bestetik, baita elementu etno-kultural zenbait existitzea ere.

Beste ildo batetik, Michael E. Geislerrek (2009) dioten bezala, nazionalismoak nola funtzionatzen duen ulertu nahi badugu, ezinbestekoa da sinbolo edo ikur nazionalak eta haien arteko loturak aztertzea. Izan ere, horien etengabeko errepikapenak eta errekurtsibitateak indar eragile nabarmena hartzen dute identitate kolektiboak eraikitzerakoan. Fenomeno honen adibidetzat har ditzakegu banderak, ereserkiak, desfileak, txanponak, hiriburuak, folkloreak edota tradizioaren agerpenak, heroiak, istorio epikoak, sukaldaritza, kirolak, dantzak, eta abar. Guztiek ere nolabait kultur adierazpena eta artea inplikatzeko maila batean edo bestean, eta aztergai dugun literatur produkzioa ere funtsezkoa da sinbolizazio ildo horretan.

Euskal aberriaren esparrura etortzen bagara, lurraldea eta hizkuntza izan dira ziurrenik identitate nazionalaren elementu objektibagarri eta konstanteenak. Are gehiago, hizkuntzaren pisua aski nabaria da euskaldunek historian zehar euren burua definitzeko egin dituzten askotariko adierazpen artistiko nahiz politikoetan, eta hizkuntzaren indar aglomeratzaile hori kanpotik ere azpimarratu izan dute. Gogoangarria da, adibidez, José Cadalso (1741-1782) espainiar literatoak Montesquieu ilustratuaren ildotik onduriko *Cartas marruecas* (1789) lan famatuan euskaldunei buruz idatzia:

En efecto, los cántabros, entendiendo por este nombre todos los que hablan el idioma vizcaíno, son unos pueblos sencillos y de notoria probidad. (...) Aunque un vizcaíno se ausente de su patria, siempre se halla en ella como encuentre con paisanos suyos. Tienen entre sí tal unión, que la mayor recomendación que puede uno tener para con otro es el mero hecho de ser vizcaíno, sin más diferencia entre varios de ellos para alcanzar el favor del poderoso que la mayor o menor intermediación de los lugares respectivos. El señorío de Vizcaya, Guipúzcoa, Álava y el reino de Navarra tienen tal pacto entre sí, que algunos llaman estos países las provincias unidas de España. (2006:123-124)

Hurrengo mendean, Victor Hugo (1802-1885) —ordurako Académie Françaisearen kide zena— Euskal Herrian izan zen bidaiari. 1843ko abuztuaren 2an Donostiatik pasa zen, eta honela idatzi zuen orduan:

⁴ Ikus, halaber, Smith 1997 eta 2000.

Aspect singulier d'ailleurs et digne d'étude. J'ajoute qu'ici un lien secret et profond, et que rien n'a pu rompre, unit, même en dépit des traités, ces frontières diplomatiques, même en dépit des Pyrénées, ces frontières naturelles, tous les membres de la mystérieuse famille basque. Le vieux mot Navarre n'est pas un mot. On naît basque, on parle basque, on vit basque et l'on meurt basque. (2002:62)

Iduri du Hugok, joera erromantiko nagusiaren ildoan, nazio edo herri baten existentzia "naturala"z oharatzen duela irakurlea; baina azpimarratzekoa da hizkuntzak zer nolako lekua hartzen duen hemen ere. Honela baieztatzen du Hugok:

La langue basque est une patrie, j'ai presque dit une religion. Dites un mot basque à un montagnard dans la montagne; avant ce mot, vous étiez à peine un homme pour lui; vous voilà son frère. La langue espagnole est ici étrangère comme la langue française. (2002:62)

Oro har, bada, hala euskaldunek nola kanpotarrek lehen mailako garrantzia eman diote euskarari, eta, praktikan, hiztunentzat familiarrekotasun giroa eskaintzen duen faktore kohesionatzailea da. Euskal nazioa konfiguratzekoan, ordea, Erromantizismoaren aroan adierazi zen modu agerikoan, Europa osoan gertatu bezala, eta, pixkanaka, arrazaren faktorearekin leiatu eta gailentzeraino iritsi da (Mees 2012:320-344). Kontrara, lurraldeari dagokion eztabaida askoz konplexuagoa suertatu da historian zehar, eta horren erakusgarritzat har daiteke izendapenaren inguruan azaleratzen den gatazka.

Historiaren talaiatik egin daitezkeen azterketak adituentzat utzita, garrantzitsua deritzogu literaturan islaturiko faktore espazial sinbolikoei erreparatzea, edo, nahi bada, espazioaren metaforei, horien azterketak seinaleak eman baititzake aberri kulturalen itsatsiriko ideia orokorragoak ulertzeko. Izan ere, ezin dugu ahaztu lurraldea, De la Encinak dioen bezala (2004), balio sinboliko, politiko eta sozialez kargaturiko elementu bat dela:

Si el lenguaje es un elemento no material de la cultura aglutinador de la idea de nación, lo mismo puede decirse del territorio como elemento físico o material, aunque sea algo más que eso. El territorio tiene unas características peculiares que lo hacen conflictivo, complejo y dinámico. (...) Existe una clara relación entre comportamiento socio-cultural y territorio. Este último no es simplemente un ámbito geográfico de mantenimiento de relaciones ecológicas y económicas necesarias, un mero espacio de asentamiento y transformación. Es, además, y sobre todo, un componente cargado de significado social, político y simbólico. (2004:269)

Alderdi hori azpimarratu dute *heimataren* ikerketa garaikideek ere. Gertrud Lehnert adituak, adibidez, espazioak emozioekin duen lotura aztertu du *Raum und Gefühl* (2011)⁵ lanean, espazioek emozioak "gorpuzten" dituztelako edo, bestela esanda, lurraldeak emozioak "espazializatzen" dituelako.

Ikusten den bezala, nazioaren kontzepzioak garapen konplexua izan du Erromantizismotik gaur arte. Hurrengo lerroetan, teorikoez azaleratu dituzten ideiak euskal eremuan zehaztuak ikusiko ditugu, aberriaren konfigurazio erromantikoetatik ikuspegi garaikideetarako ibilbidearen zenbait mugarri seinalatuko baitugu. Horrela, lehen errepresentazio esentzialistetatik azken proposamen deseraikitzaileetara, askotariko ñabardurak sumatu ahal izango ditugu idazleek egin dituzten euskal aberriaren errepresentazio sinbolikoetan.

Bestalde, ikusiko dugu nola nazio kulturalaren egituraketan faktore edota asmo politikoek izaniko eragin erabakigarria azpimarratzen den gizartean partekatzen diren sinbolo, ospakuntza, tradizio edota lekuei kolektibo jakin batek ematen dien edukiaren ondorioz. Hala, adibide gisa aipa liteke XIX. mendearen

⁵"Raum und Gefühl sind nicht zu trennen, und das ist am Ende mehr eine Metapher dafür, dass wir uns Welt in Raumvorstellungen aneignen" (Lehnert 2011:18).

erdialdean Foruen inguruan gizartean zegoen pertzepzioak jasandako bilakaera, edota Gernikako arbolaren sinbolismoaren apropiazio eta berrapropiazioek eginiko bide luzea. Izan ere, Mikel Aizpuruk adierazi moduan (2006), mugimendu sozialek sinbolo, ospakuntza edo ikurrak *ex novo* sortu eta ezarri baino gehiago, jadanik gizartean errotuak daudenak berrerabili eta eduki berriz janzten dituzte.

Euskal identitate abertzalearen eraikuntzan, ez da zalantzarik prozesu horretan bi aldaketa-une nagusi azpimarra daitezkeela: Gerla Karlisten amaieratik II. Errepublikara amaitu arteko unea (1876-1936), eta trantsizio garaitik honakoa, zeinetan abertzaletasunaren unibertso sinbolikoan klase ideologiaren, feminismoaren eta genero aniztasunaren arloko berrikuntzak integratu diren. Lehenengo urrats batean, beraz, abertzaletasunaren kulturaren eraketari erreparatuko diogu, eta haren identitate-zeinuei. Gogora dezagun XX. mendeko lehen herenean moldaturiko sinbolo sare abertzalearen subjektua Lizardi eta Lauaxetaren belaunaldia izan zela. Ikus dezagun, bada, subjektu abertzalearen sinbolizazio sarean zein irudik hartzen duten garrantzia. Abertzalea deritzogun arren, ordea, ez dezakegu isilean utzi abertzaletasuna euskal gizartean finkatuak zeuden zenbait fideltasun eta autoirudiren lurralde sinbolikoan errotu zela, eta Arana-Goiriren alderdiak zenbait identitate-leku propio ezarri bazituen ere, beste zenbait lehendik euskal gizartearen kultura kolektiboan errotuak zirela (Aizpuru 2006).

3. Haritz eder bat bada

Erromantizismo garaiko aberriaren irudikapen literario ezagunena Jose Maria Iparragirrek (1820-1881) konposaturiko “Gernikako arbola” (1853) bilakatu zen. Berehala finkatu zen euskal Foruen defentsarako kantu gisa; pauso horretan, zortziko bat izateak ere indartu egin zuen testuaren gorazarre izaera. Zehazki, zuhaitza bota nahi dutenen aurrean hura zaindu eta babesteko deia egin zuen: “Arbola botatzia / dutela pentsatu / Euskal Herri guztian / denok badakigu. / Ea bada jendea / denbora orain degu / erori gabetanik / eduki behar degu”.

Esan behar da, edonola ere, Iparragirrarena ez dela Gernikako arbola sinbolotzat baliatzen duen erreferentzia bakarra, ezta lehena ere. Jean Haritschelharrek (2000) azaldu zuen bezala, “l'arbre de Guernica n'est pas simplement connu des Biscayens ou des Basques. Son renom est tel que Tirso de Molina y fait allusion et que Jean-Jacques Rousseau en fait le symbole des libertés basques”. Euskaldunentzat ez ezik, Gernikako Arbola euskal herritarren ikur ezaguna zen, beraz, espainiar zein frantsesentzat. Izan ere, Gerra Napoleonikoen garaian, hala Alfred Tennyson (1809-1892) nola William Wordsworth (1770-1850) poeta erromantiko ingelesek poemak idatzi zituzten Espainiaz eta une hartako egoeraz. Bigarrenaren “The Oak of Guernica” (1810) izeneko hamalaudunean Iparragirren abestiaren eduki eta enuntziatio zenbait aurki ditzakegu:

Oak of Guernica! Tree of holier power
Than that which in Dodona did enshrine
(So faith too fondly deemed) a voice divine
Heard from the depths of its aerial bower—
How canst thou flourish at this blighting hour?
What hope, what joy can sunshine bring to thee,
Or the soft breezes from the Atlantic sea,
The dews of morn, or April's tender shower?
Stroke merciful and welcome would that be
Which should extend thy branches on the ground,
If never more within their shady round
Those lofty-minded Lawgivers shall meet,
Peasant and lord, in their appointed seat,
Guardians of Biscay's ancient liberty.


Iparragirreraren gorazarrearen jarraipentzat har daiteke, aldiz, Jean Baptiste Elizanbururen “Eskalduna” (1867) poemako zuhaitzaren heiagora: “Eskaldun seme dena bedi alegera... / Ikusi dut bet-betan, oi! zen den ederra, / Ez ametsetan, ez ametsetan, nintzen atzarria / Arbola bat arrokan, ederki jarria. // Zer haiz bada arbola? Orai mintza hadi, / Arrokatik begira hagoena guri. / «Ni nauk eskaldun bai aspaldikoa, / Egundaino aizkorak ezin hautsizkoa». Poema horretan modu dramatikoan garatzen du Elizanburuk historian zehar arbolari eraso diotenen, erromatarren edota Karlomanen armaden eginahal gogorra; baina zuhaitza arrokan babesten du, mendiak. Hona, beraz, Erromantizismoak garaturiko Euskal Herriaren iraupenaren bi sinboloak bat eginik: arbola baldin bada haren bizia, segurtatzen duena mendia da. Izan ere, euskal iruditeriaren muinean mendiaren sinbologia ahaltsua zen, eta arbasoen espazio nagusia mendi garaietan kokatzen zen (Monreal 2016).

Arbolaren irudia baliatu zuten poemak bakarrik aipatzearen, Ipar Euskal Herrian bezala Hegoaldean, hainbat dira aipa daitezkeen testuak. Esaterako, Felipe Arrese Beitiaren “Gure arbola gazteari”, “Gernikako arboleari” edo “Gure aretxaren kerizpea”. Horietan, bat egiten dute euskaltasunak eta fede kristauak; hain zuzen, Arrese Beitiak paradisuko arbolaren parekotzat jartzen du Gernikakoa, haren gerizpean bizi den herria goraiatuz. Horrela, adibidez, 1886ko “Gernikako arboleari” poeman:

Zarealako bazter onetan gorde dozuna,
Erri bat zure kerizpeagaz aiñ librea,
Zeure semeak mendi ta atxez or eutselako
Arerioari beti itxiten arratea,
Paradisuan egoan zugatz aren antzera,
Zuk dirudizu jakituria-dun Abea,
Zure barrutik or jatzulako goruntz urteten
Jakituria zerukoaren Arbolea.

Garai horretako beste poeta aipagarri batek ere, Arrese Beitiaren garaikidea izan zen Gratien Adema Zaldubik (1828-1907), ekarpen ezaguna egin zuen irudikapen honen ildoan. Bere “Gauden eskualdun” (1893) poemak, abesti egitura markatuz eraikita, aldarrikapen tonuko errepresentazio bat proposatzen zuen: “Haritz eder bada gure mendietan, / zazpi adarrez dena zabaltzen airetan, / Frantzian, Espainian, bi alderdietan, / hemen hiru 'ta han lau, bat da zazpietan”. Hizkuntza, fedea eta odola aipatzen zituen Zaldubik, eta, aurreko errepresentazioetan bezala, zuhaitza arriskuan zegoela aldarrikatzen. Alabaina, Zaldubik zazpi probintzien irudia baliatu zuen oinarri gisa, eta, zuhaitzaren sinboloaren bidez, lurraldearen eta historiaren kontzepzio berritzaile bat indartu.

Adibide esanguratsuok gogorarazten digute Iparragirreraren abestiaren bidez zabaldutako irudikapen sinbolikoak, *mutatis mutandis*, indar apartekoz iraun zuela. Are gehiago, Arana-Goirik Euzkadirentzat ereserki bat sortu bazuen ere (“Euzko Abendaren Ereserkija”), “Gernikako Arbola” edozein ideologiatako euskal herritarrek aitortzen dute himnotzat. Horrek harremana dauka abestiak gogora ekartzen dituen elementu sinbolikoekin, euskaldunarentzat karga handia duten erreferentziak baitira: Gernika, zuhaitza, eta foruak (Esparza 2020).



Balio sinbolikoaz ari garenez gero, har dezagun une batez gogoan Gernikako arbolaren espazioa, inguruan dituen Bizkaiko Batzar Nagusiekin eta, nola ez, zuhaitza inguratzen duten lorategi ederrekin. Espazio horren “sokratutasuna” maiz irudikatu izan da margolan eta argazkietan, otoitz-egoeran dagoen pertsona bat irudikatuz zuhaitzaren aurrean. Ezagunena 1964ko Aberri Eguneako karteletako argazkia da, zeinetan Kike Martinez Lezea agertzen den *Paris matche*ko argazkilariari bizkarra emanda, eta burua makurturik arbolaren aurrean.

Bestelako irudikapenik ere izan da, jakina. Eduardo Txillidak, esate baterako, Euskal Herriko Unibertsitatearen ikurra egiterakoan baliatu zuen arbolaren adaburua modu abstraktuan emanaz, eta irudiaren gainean Iparragirrenen hitzak paratuz: “eman ta zabal zazu”.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Oro har, lorategiaren erdian dagoen zuhaitz osasuntsuaren irudiak Euskal Herri idiliko bat errepresentatu izan du, gerora Gernikako bonbardaketak eraitsia. Zer esanik ez da, Gernikako juntetxeak, hedaduraz, ideologia guztietako euskal herritarren artean hartzen duen sinbolismo ukaezina: batetik, tradizioaren sinbolismoagatik, euskal erakunde guztien aitormen orokorragatik; eta, bestetik, Gerra Zibilean alemanek eta italiarrek eginiko aire bonbardaketagatik (1937) eta, ondoren, Errepublikak Pablo Picassori eskaturiko koadroaren nazioarteko sinbolismo handiagatik (ikus Luengo eta Zendagorta 2015).

Erromantizismoaren atal hau ixteko, merezi du gaztelaniazko euskal idazle ezagunen aipamen laburra egitea ere. Erdal idazleen artean, Pio Barojak (1872-1956) ongi errepresentatzen ditu eleberri historikoaz edo elezaharrez interesa erakutsi zuten askotariko egileak (Juaristi 1987). Bere obra eskergan, haurtzaroan hunkitu zuten paisaiak eta pertsonak birsortu zituen Barojak. Martin Zalakain bezalako arketipoek Euskal Herriaren irudikapen erromantikoaren paradigma osatzen dute. Izan ere, Gerra Karlisten garaian legeei iskin egiten dien gizona da Martin, ez da inoiz errenditzen, noblea da izaeraz, eta bere lurraldearen bizipenak —erromantikoa, hori ere— ez du onartzen estatu modernoaren araudirik eta mugarik. Ildo berean, beharbada *La leyenda de Jaun de Alzate* da Barojaren lan azpimarragarrienetakoa,

zeinaren sarreran egileak berak idatzi duen: “quiero cantar nuestra comarca en su estado natural y primitivo, y expresar, aunque sea de una manera deficiente y torpe, el encanto y la gracia de esta tierra dulce y amable” (1972:14). Izan ere, Nafarroako mendialdeko paisaia kokatu zuen Barojak iraganeko Euskal Herri legendarioa, eta hartan oinarrituz osatu zituen Xabier Letek “Alzateko Jaun” izeneko poema (1968) eta abestia (1974) (Gurrutxaga 2020).

Irudikapen hauek, esan bezala, erromantikoak dira funtsean. Sabino Aranak, ordea, funts erromantikoa mugimendu politiko gisa kanalizatzen asmatu zuen pragmatismo modernoz. Euskal Herriari nazio osagaiak eskaini zizkion buruzagiak, eta foruzaletasuna izendatu den abertzaletasun prenatal hartatik kontzepzio edo *constructum* politiko “nazional” oso bat eraikitzekeko estrategiak garatu zituen. Hizkuntzari dagokionez, Orixeren 1927ko hitzekin azal daiteke haren eragina:

Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta inarrosi du burua bizkor. Politikaz txintik eztizut aterako, ezpaitagokit: euskeraren esnatzeari nagozu. Mintzatu zen Bizkaia, ta itzetik ortzera «inbido» otsegin zigun beste euskaldunei. [...] Andik onata euskera aurrera doa arek eman-zitzua geitzen dularik. Ez dakigu ilen ote den, agian ez, baino biziko ba da, geroak esanen du Arana'ren bultzaraz noraino diteken gure mintzoa ta literatura.

4. Eguzkiz jantzi zen asaba zaharren baratza

Ikusi dugu desagertzen ari zen euskal mundu tradizionalarekiko kantu erromantiko etsiperatuak eta iragan mitikoa birsortzen zuten kondairak nagusitu zirela. Alabaina, XX. mendearen lehen hereneko zenbait egilek irudikapen erromantikoa gainditzeko lehen pausoak eman zituzten.

Oso lerro nagusietan esatea zilegi bada, galdutako Foruen nostalgia literatura melankolikoaren bidez irudikatu zen, baina mende berrian “maremagnum foralista”ri (Mees 2012:409) abertzaletasunak erantzuna eman zion begiak etorkizunean jarriz. Bestalde, sinboloen identifikaziorako ezinbesteko diren oinarri historiografikoen artean aipagarri da, gisa berean, Mikel Aizpuru eta Jose Portillok (2015) azpimarratzen dutena: EAJren abertzaletasunak bikoiztasun nabaria duela; ideologia tradizionalista du, baina modernoa da jarduteko eran eta mobilizazio estrategietan (2015:30-31).

Euskal literaturak ere islatzen duen aldaketaren gauzaper erabatekoa ikusteko Pizkundearen azken urteetara joan behar dugu eta, batez ere, Jose Maria Agirre, Xabier Lizardi izenez ezaguna den poetaren (1896-1933) idazlanetara⁶. Lizardik XIX. mendetik zetorren euskal irudikapen erromantikoak jaso eta berridatzi zituen lehenik. Hala, esate baterako, gorago aipatu dugun euskal mendiaren ideien idazketa ikus genezake “Samaiko zulo” gisa sinatuko zuen “Euzko mendiya” (1917) poeman. Olerki honen gaiak XIX. mendeko erromantiko eta foruzaleen artean arrakasta handia izaniko mendiaren eta euskal askatasunaren errepresentazioa berritzen du, eta iturri tematikotzat Elizanburu edo Arrese Beitia aipa litezke; beti ere, jakina, abertzaletasunaren sinbolo, hiztegi eta hizkera garbizalean birmoldaturik. Zehazki, lehen atalean, euskaldunaren eta arranoaren arteko alderaketa Elizanbururen “Arbasoak” izeneko poematik datorrela pentsa daiteke.

Garai beretsuan landu zuen Lizardik Arrese Beitia “ama euskera”ren gaia ere, “Amona ximel maittagarria” ipuinean (*Euzko Deya* 1918/7/1, 6. or). Kasu honetan, beste zenbait kazetari artikulutan erabiltzen den gaia hartu zuen era fikzionalen: euskarak daraman atzeratze prozesu azkarra, euskara galtze horrek erlijio eta beste zenbait ohitura “on”ekin duen lotura estua. Gaia berria ez bada ere,

⁶ Ibilbide horren zantzuak lehendik suma balitezke ere, hala nola Antonio Arruti (1882-1919) bezalako poetengan (ikus Gurrutxaga 2013), ezin da modernitatearen gauzaper erabatekoaz hitz egin Pizkundearen azken urteak iritsi arte.

“amonatxo zimel maitagarria” aipagarria da amonaren eta euskararen identifikazioarengatik, geroago “Asaba zaarren baratza” (1930) eta “Euskal Pizkundea” (1932) poemetan berriro erabiliko duenean aldatua ageri zaigulako. Arrese Beitiak ama euskeraren pertsonaia Gernikako arbolaren oinetan jartzen hiltzeko unean, hartara, ama euskeraren heriotza eta foruen galera ezinbestez elkartuta errepresentatuz eta hausnarketa hauxe luzatuz: “Niri ezetz dinost goguak, / Baldin euskera bizitzen ezpada / Illtzat daukadaz foruak”. Arrese Beitiak alegoria bakar batean elkartzen ditu Erromantizismoan garaturiko euskal identitatearen hiru osagai nagusiak. Batetik, jadanik aipatu diren Foruak/zuhaitza eta euskara/ama; eta, bestetik, hirugarren elementu bat: mendia/euskararen babesleku gisa:

Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendiak,
Orañ artian zuek zare izan
Foruen gordelariak;
Zuek goietan beti euskeldun
Ez alan beian erriak,
Orra zer gero ekarri deuskun
Azkenian erderiak.

Pizkundearen gailurreko urteetan (1926-1936) Lizardiren berridazketa modernistan osagai horietako batzuk aldatuak dira. Funtsean nazioaren irudikapenaren hiru osagaiek —lurraldeak, hizkuntzak eta eraketa politikoak— hor diraute, baina eraldaturik. Zaldubi edo Arreseren testuetako enuntziatioa atzera utzi da, Lizardik ez baitu euskalduna erruduntzearen bidez *pathos*aren argumentarioa lehenesten, eta ez du ama horren heriotzaren sufrimenduaren argumentua indartzeko, esklamazio, inprekazio eta heia gora hanpatuez adierazten. Ez du antitesi biziz lehengo eta oraingo euskaldunen alderaketaz gure gainbehera deitoragarria dramatikoki margotzen. Aitzitik, “Asaba zaharren baratza” (1930) poematan, Lizardik ni poetiko baten narrazioaren bidez aurkezten digu aberriaren lurraldea —baratzea— eta bere hizkuntzaren egoera larria —amonaren delirioa—. Baina antzaldatzea gertatuko da baratzean, zuhaitz berri baten itzalari esker:

Ta leen ikusi-gabeko
zuhaitz berri bat zegoan
erdian, guzien buru...
Aren gerizak erri-baratzak
ezin-ilkor egin ditu.

Olerki honetan, baratzearen erdiko zuhaitzaren gerizpean etorkizuna bermatzen da, “ezin-ilkor” bilakatuz. Lizardik berak lehen edizioko oin-oharrean zehaztu zuenez, zuhaitz hori abertzaletasunaren sinbolo da. Eraldaketa handia da, poetak abertzaletasunaren zuhaitz babeslearekin ordezkatu baitu Foruen zuhaitz zaharra; eta, bestetik, euskararen etorkizuna belaunaldi berriek ziurtatzen dutela iradoki, “lokarri zaharra” ez baita eten. Interesgarria da aberriaren irudikapen espazialak naturarekin lotura izatea, gogoratu behar baita baratzea, batez ere, natura kontrolatuaren sinboloa dela —*hortus conclusus*—, oihanari kontrajartzen zaiona, lehenaren ordenu eta arrazionaltasuna bigarrenaren inkontzienteari eta salbaiatasunari bezala, mendiaren eta harkaitzen epikotasuna atzera utzi dira.

Hortaz, euskal nazionalismo modernoaren irudia espazio natural itxi batean kondentsatzen da, ideologia abertzalearen zuhaitz ahaltsuak babestua. Gernika abertzalea da Lizardiren baratze hori: egitasmo antolatu bat. Horregatik, Txillidak Lizardiren omenez, Tolosan, Aranburu jauregiaren ondoan egindako eskulturak etxe baten hormako leihotik espazio ezagun eta afektiboa ikusarazten digu, arbasoen lorategira ematen duen *Lizardiren leihoa*.



Argitaratu zenetik testuz testu hainbat bider aipatua izan bada ere, Lizardiren testuaren popularizazioa berankorra izan zen; zehazki, Antton Valverdek 1975ean sortutako bertsio musikatu baten ondorioz abertzaletasun kulturalaren benetako ereserkia bilakatu zenean. Iparragirreraren, Arrese Beitiaren edo Zaldubiren kantuko zuhaitz zahar eta Foruen inkarnazioa zen hura, Lizardiren garaian zuhaitz nazionalista bilakatu zen, eta jadanik ez zen mehatxupean irudikatzen. Baratzea gutxitua eta euskara hiltzorian bazegoen ere, belaunaldi berrien kemenez eta abertzaletasunaren bermeaz biziberriturik erakusten zigun, eta Lizardiren errepresentazioari baikotasuna zerion. Hala, euskal nortasunaren iraupena sustatu eta babesten duen ideologiaren alegoria irudikatzen iritsi zen, eta frankismoaren urte luzeetan babesleku gisa finkatu zen irudizko aberri hori, Koldo Mitxelenaren, Gabriel Arestiren, Gabriel Celayaren edo Xabier Leteren lanetan.

Trantsizioaren belaunaldiarentzat Valverderen kantuak euskal identitatearen irudikapen erakargarria itsatsi zuen, kultura lantzerak eta etorkizuneko belaunaldientzat mantentzera dei eginez. Ildo beretik jo zuten “Euskal Pizkundea” (1933) edota “Izotz ondoko iguzki” (1932) poemek Benito Lertxundi eta Xabier Leteren bertsio kantatuei esker. Hiruetan dugu enuntziatio itxaropentsua, eta, Lizardiren ahots lirikoaren xarmaren bitartekotzez, euskaldunen eskuetan jarri zen herriaren ametsa, II. Errepublikak emandako arnas berriak hartaraturik.

Tamalez, lehen mugimendu Modernista kultural hura bortizki hautsi zuen Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939). Gerra honetako gertaera garrantzitsuenetako bat 1937ko apirilaren 27an Gernika bonbardatzea izan zen. Gernikak balio sinboliko handia zuen zuhaitz ospetsua eta Juntetxe zaharra kontserbatzeagatik eta, zentzu horretan, hiriaren bonbardaketa kolpe bat izan zen identitate kolektiboarentzat eta euskal kulturarentzat oro har. Beste faktore garrantzitsu bat, atentatuaren esanahi sinbolikoa adierazten duena, bonbardaketaren eta galdutako gerraren arteko lotura da: nolabait, Gernika izan da “gure gerra galduen” oroigarria. Bonbardaketa eta suaren oroitzapena bizirik daude gerraosteko belaunaldi oso baten buruan, eta gertakariak bidegabekeria bat transmititzen du, gizarte osoari marka iraunkorra uzten diona (ikus Olaziregi eta Otaegi 2011). Horrez gain, Gernikari buruzko gezur ofizialak Francoren diktaduraren 40 urteak sinbolizatzen ditu, aditu askoren iritziz, amaitu gabeko gerraren jarraipena. Ludger Meesek dioenez (2012:407-429), ziurrenik Gernika da gaur egun oroimen lekuri garrantzitsuena euskal gizartearentzat, euskal demokraziaren eta askatasunaren sinbolo izanik, 1937ko bonbardaketa faszistak nazioartean guztiz ezagun bilakatu zuelako, Picassoren obraren indarrez ahantzezin bilakaturik. Iñaki Eizmendi *Basarri*ren bertsoetan mamitu zen Gernika memoria leku gisa euskal herritarrentzat:

Ezta ez alperrikako izan or ixuri dan odola
Pentsa oraindik emaitz ederrak ematekotan dagola;
Eusko gogoa armez ta indarrez ezin il leike inola
Gernika erre ziguten baña, zutunik dago arbola.

Era berean, gogora bedi nola Eusko Jaurlaritzako lehen agintaria izan zen Agirre lehendakariak, 1943ko *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* liburu ezagunean, alderatu zituen Pearl Harburren eta Gernikaren garrantzia historikoak:

Si Pearl Harbor fue un terrible golpe para los americanos, podrá figurarse el lector lo que significó para los vascos la destrucción de Guernica, símbolo viviente de todo lo que era más querido por ellos. (...) Por muchas millas que separen Guernica de Pearl Harbor, ambas tienen la misma significación histórica. (1942, 1992:25)

5. Euskal Harria

Pizkunde garaiko aberriaren irudikapenek aberriaren promesa desiragarri bat proposatzen zuten. Errepresentazio horiek, ordea, gertakari historiko lazgarriekin egin zuten talka, eta, gudaosteko urteetan, zapalkuntza eta ukapena izan ziren nagusi esparru politiko eta sozialean. Paul Prestonek *The Spanish Holocausten* (2007) dioenez, diktadura frankistaren urteetan, alde batetik, herritar “gorri eta separatistak” porrota onartzera eta eskarmentatzera behartu zituzten; eta, bestetik, euren “errua” sozialki ordaindu edo erredimitu behar zuten zigorraren bidez. Horregatik, errepublikar gobernuak bonbardaketa salatu arren, Francoren erregimenak beti esan zuen Gernika errepublikarrek erre zutela. Horrela, Francoren erregimenaren errepresioak, gerraren zauri psikologikoak sendatzea galarazteaz gain, garaitutako familiei sufrimendu handiagoa gehitu zien (Álvarez 2007:187), isilarazitako memoriaren zauria sendatzen utzi gabe.

Gernika bonbardatuta eta euskal kulturaren oinarriak birrinduta, aberria ez zen jada zuhaitz sakratuaren gerizapeko baratze bat, borroka gune eta porrotaren oroitzapen luze bat baizik. Klabe horretan uler daitezke Gabriel Arestiren (1934-1975) harriaren zikloa osatzen duten hiru poema liburuak, eta, bereziki, “Nire aitaren etxea” (1963) poema ezaguna. Testu hori poesia sozialaren parametro estetikoek baliatuz idatzia da, eta aberriaren aldeko borrokari eutsiko dion euskaldunaren juramendu gisa irakur daiteke. Hain zuzen, ez da kasualitatea Txillidak Arestiren ideian inspiratuta egindako “Gure aitaren etxea” Gernikan kokatu izana: horma zulatuak dituen etxearen itxura du, irekia; Gernikako juntetxeari eta zuhaitzari begira kokatua dago, eta alboan estela batez hornitua, bonbardaketan hildakoei eginiko alusio gisa⁷.

⁷ “El escultor dijo que concibe su obra como una casa y un barco abiertos, en un espacio que se activa extraordinariamente al bordear la escultura. Los muros están abiertos por un enorme hueco que para Chillida representa la ventana que comunica con el árbol de Gernika. La estela funeraria de acero instalada en uno de los muros de la obra, “un símbolo de paz”, trata, según el escultor, de establecer un contrapunto con el árbol de Gernika, un diálogo con el entorno, y constituye el eje y el punto de referencia de la obra” (*El País*, 1987/11/05).



Arestiren poemek, oro har, erresistentzia gune bat eraikitzen dute frankismoak egunerokotasuneko espazio guztietan ezarria zeukan zapalkuntzaren aurrean. Zentzu horretan, interes handia du Arestiren poesia frankismoa pairatu zuten beste erdal egile zenbaiten ondoan irakurtzeak. Ez gara hemen luzatuko Blas de Otero edota Gabriel Celaya gaztelaniazko euskal idazleekin lotuz, ezagunak baitira egile horien arteko zubiak; baina merezi du, aberriaren errepresentazioez ari garenez, harago eraman gaitzaketen beste zenbait aipamen egiteak. Jakin badakigu, izan ere, Arestik kontaktuak izan zituela Salvador Espriu (1913-1985) eta Manuel María (1929-2004) bezalako idazleekin, zeintzuek, Arestik bezala, Espainiako hizkuntza gutxiagotuetan idatzi baitzuten eta kulturalki engaiatu baitziren. Euren posizio politiko-kulturalak Espainiaren erregimenaren aurreko erresistentzia zeraman berarekin, eta aurrean zuten erregimen frankista poetikoki irudikatu nahi izan zutelarik, zeharkako adierazpenetara jo zuten. Manuel Maríak, hain zuzen, abiarazi zuen *Escola da tebra* izenekoa: poesia sozialaren ildoko taldea zen, baina are nabariagoa izan zuen angustiaren eta etsipenaren adierazpena, bereziki Martin Heidegger, Karl Jaspers, Jean-Paul Sartre edo Albert Camus bezalako egileetatik edan zuena. Eskola honetan kokatu izan dira Xosé Luís Franco Grande, Uxío Novoneyra, Xohana Torres, Bernardino Graña, Méndez Ferrín edota Avilés de Taramancos. Baina Aresti gertutik hunkitzen duen aberriaren irudikapenik baldin bada, harria eta harriaren irudia da. Angel Zelaietak dioenez (2000:161-162), Jorge Oteizaren ideia estetikoetan oinarritu zen Aresti, haren lagun mina baitzen urte haietan; eta froga gisa aipatzen du Arestik Oteizaren kartarekin batean argitaratu zuela “Mailu Batekin”, *Eganen* separatan. Bestalde, 1967an Hernanin emandako “Euskeraren izen poetikoa” hitzaldian euskal etsaiak itoginarekin alderatu zituen: “Euskera harri bat da. Baina euskaldun klase hori itoginaren parekoa da, eta urteen buruan, mendeen eta mendeen buruan, ur tantak harria jaten du”. Arestik bere “litofilia” zeritzan, umorez, harriaren metaforari zion atxikimendu horri. Bestalde, Omar Nabarro iradoki bezala (1987), Arestiren harriaren sinbologiaren jatorri literario probableena behin baino gehiagotan goraiatu zuen ahozko literaturan eresien artean kokatzen den “Milia Lasturko” balada zaharra da: “Jausi da zerurean harria / aurkitu dau Lasturren torre barria / Edegi dio almeneari erdia”.

Harriaren ziklo poetikoaren lehen emaitza gisa argitaratu zen *Harri eta herri* liburuan (1964) Euskal Herriaren hondamendiaren metafora da harria, etxeari heldu zaion kalte handiaren sinboloa, diktadurarena⁸. Zerutik harria jausi bada ere, ez da ahantzi behar euskal herriaren edota euskararen sinbolo den etxea ere harrizkoa dela, “almeneari erdia kendu” badio ere, etxeak iraun egingo du, “Gure aitaren etxea” poeman esaten denez. Edonork uler eta asimila dezakeen inpaktuko sinbolo honi esker, harriaren gogortasunari harriaren erresistentzia handia kontrajartzen dio Arestik (Nabarro 1987:17).

⁸ Harriaren zikloko liburuen eta estatuko beste hizkuntzetako poeta sozialei buruzko harremanari buruz, ikus Otaegi 2018.

Euskaldunok harriez metaforizatzea ez da, bestalde, guztiz berria. Miguel Hernándezek “vascos blindados de piedra” deitu gintuen, eta Arrese Beitiak behin eta berriro erabiltzen zuen harkaitzaren tropoa euskaldunok signifikatzeko. Gabriel Arestik berak, azkenez, inoiz kontatu omen zuen, behin Abadiñoko Salbatore ermita-aurrean hamabi herriak beste hamabi harriz ordezkatuak, zirkuluan, ikusi zituenean, otu zitziola metafora hori, titulu paronomaxikoa borobilduz: harriak herria ordezkaten du, haren sinboloa da.

Bestalde, Celso Emilio Ferreiroren *Longa noite de pedra* liburuaren influentzia ere ikusten du Juan San Martinek, eta baita Angel Zelaietak ere. Dioenez, liburuaren hitzaurrea idaztean hori esatekotan ere egon omen zen bera, baina gure poetarik promesgarriari originaltasun hori ez ukatzea erabaki zuen. Ferreiro (1912-1979) poeta galiziarra kartzelan egon zen, eta espetxearen eraikinaren harrizko egiturak maila metaforiko zabalagoa hartu zuen frankismoaz mintzatuz. Frankismoaren urte luzeen aipamena ahanztezina bilakatzen da harriaren metafora zanpatzailearen errepikapenaren eraginez:

O teito é de pedra.	Sabaia harrizkoa da.
De pedra son os muros	Harrizko dira horma
i as tebras.	eta teniolak.
De pedra o cha	Harrizko zoru
i as reixas.	eta leihosareak.
As portas,	Ateak,
as cadeas,	kateak,
o aire,	airea,
as fenestras,	leihoak,
as olladas,	begiradak,
son de pedra.	dira harrizko.
Os corazós dos homes ⁹	Urrunean zain dauden
que ao lonxe espreitan,	gizonen bihotzak ere
feitos están	eginik daude
tamén	harriz.
de pedra.	Eta ni, hiltzen ari
I eu, morrendo	harrizko
nesta longa noite	gau luze honetan.
de pedra.	(Jesus Etxezarraga itzul., 1988)

Bestalde, aipagarri da Pilar Cáceresen ikerlana (2013) Francoren erregimenaren pean bizi ziren poeten hizkerari buruz, poeta sozialen kodigo poetikoa deskribatzera iritsi baita xehetasunez. Haren iritziz, poeta horien lanetan sentsazio fisiko eta psikiko negatiboen aipamenak erabiltzen dira poetaren ezinegon soziopolitikoa adierazteko: gosea eta egarria, hotza, iluntasuna eta nahasmena, akidura, gaixotasuna eta abaildura psikikoa gailentzen dira. Poetaren sentsazio fisiko eta psikiko ilunek adierazpen modu “gehiegizkoa”, larritua hartzen dute, modu horretan beren ezinegonaren dimentsioa handituz, egoera muturrekoen adierazpen den mintzaira lirikoa eraikiz. Estilo liriko gainezkatu hori Holokaustoko literaturaren ezaugarri gisa ere oso aipatua da, eta poesia sozialeko poeten estiloan ere nabari da haren eragina.

Hain zuzen, Arestik ere baliatu zuen kode liriko hori aberriarekiko bere harremana irudikatzeko. Hala, aipagarri dira *Euskal Harria* poemategiko “Aberri ilunaren sonetoak” izenpeko hiru poemak (1967-

⁹ Sinestesia berbera baliatu zuen Xabier Letek “Euskal herri nerea” (1968) abesti ezagunean: “ezpainetan iraina, harrizko bihotza”.

1986)¹⁰. Berez, sei soneto ziren jatorrizko lanean, baina ezin izan zituen argitaratu, *Euskal Harriak* – Arestiren lan gehienek bezala– zentsura instituzionalaren zigorra pairatu baitzuen. 1967ko edizioan, aberri ilunaren hirugarren poema soilik onartu zioten, eta Karmelo Landak 1986an bideratutako edizioari itxaron beharko genion beste biak ezagutzeko¹¹. Geroztik jakin dugu, Jon Kortazarren edizioaren bidez (2016), Arestik 1962rako moldatua zuen *Mailu batekin: biola batekin* izenburuko liburuan zeuden poemak bertsoak zirela¹².

Euskal harriako poemak artean, sorta bereziki adierazgarria osatzen dute “Aberri iluna”ren sei sonetoezkin batean, “Soneto errebelatu”ek eta “Nerea etorkizunaren aurrean” serieko poemek. Hamarkadako bere testurik biribilenetakoak dira. Surrealismoz janzten da Arestiren ahotsa, zentsurari desafio egingo dion hizkera poetiko ahaltsua moldatuz. Arestiren adierazgaitasunaren gailurrean dago emaitza bere osotasunean, izan ere, herriko egoerak sortzen dion sufrimendu pertsonalaren eta poetak harekin duen batasun emozional haustezinaren arteko adierazpen bipilak baitira. Poetaren gorputzaren ahultasuna eta akidura, gaixotzera eramango duen idazte-lan etengarriaren aipamen ugariak kontrajartzen dira diktaduraren iluntasunaren, gogortasunaren eta hoztasunen aurka. Herriarekiko konpromisoari dagokionez, dramatikoki azpimarratzen da herrialdeari atxikitako epitetoen bidez —sufrimendu luzea, iluna, laino artean sartua—, eta poetak bere gorputzaren pairamen erreakzioak deskribatzen ditu: sorgortzen, erretzen, ikaritzen, baldarki mugitzen, kiribiltzen, barru-barruraino sartzen, bihotza erdiratzen, zauritzen... Azkenean sentipen fisiko guztiak sintetizatzen ditu esanez bera “ia bizitzarik gabe” dagoela bere idazteko konpromisuaren betebeharrarengatik.

Hartara, Arestik sorturiko aberriaren sinbolo eta irudikapenaren baitan, harria eta aitaren etxearen sendotasuna gehien ikusarazi diren osagaiak badira ere, ez dezakegu albo batera baztertu poetaren beraren gorputzaren zentraltasuna, hots, herriaren ordezkari den gizaki moduan, bere gorputzaren ageri zaigu errepresentatua: pairamenaz eta konpromisoaz mintzatzen baita, akiduraz, zauriez eta kolpeez. Estela funerarioz ornituriko aitaren etxe kolpatua bezain adierazgarria da herriarekin konprometituriko poetaren gorputz ebainduaren sinbolismoa.

Herriaren sufrimenduaren errepresentazio ildo berekoak dira, noski, gudaosteko Arantzazuko bi poeta aipagarrienek eraikitako irudikapenak. Batetik, Salvatore Mitxelenak Kristoren pasioaren paralelismoa baliatu zuen (*Arantzazu*, 1955), aberri terrenala eta zerukoa uztartuz. Bestetik, berriz, Bitoriano Gandiagak, txakolinaren garraztasunaren bidez, herriaren nahia eta ezina sinbolizatu zituen *Hiru gizon bakarka* (1974) poemategian (Otaegi 2009). Hain zuzen, sufrimendua eta ezina dira aberriaren sinbolizazioaren muinean gorderiko mezuak gerraosteko urteetan: harrian, Kristorengan nahiz gorputz urratuetan mamituak.

6. Hormaren arrakalak

Iparragirreraren irudi erromantikotik Arestiren aldarrikapeneraino, aberriaren errepresentazio poetikoen irudi sendo baina erasotuak proposatu zituen euskal poesiak: haritza, baratzea, aitaren etxea... Irudi horiek, hizkuntzaren eta kulturaren eskutik, euskal identitate kolektiboan iraun dute gaur arte, babes eta oinarri sinboliko bat eskainiz. Laurogeietan, ordea, irudion sendotasuna zalantzan jartzea eta

¹⁰ 2018an, Jon Juaristik soneto bilduma bat argitaratu zuen. Haren izenburuak, *Sonetos de la patria oscura* (1985-2017), nabarmen egiten dio erreferentzia Arestiri, baina gaia ezberdina da.

¹¹ Zentsuratutakoak izan ziren piezak zein izan ziren web orri honetan kontsulta daiteke: <http://www.susaliteratura.eus/liburuak/ares03>

¹² Zarauzko Itxaropenan *Harri eta Herriren* 1963ko eta *Euskal Harriaren* 1967ko ale bana gorde dira. Ikus, ale horien lehen azterketa xehea eta ondorioak Otaegi eta Gurrutxagaren (2023) lanean.

deseraikitzea heldu ziren. Izan ere, euskal gizartean frankismoaren azken urteetan erroturiko indarkeriak bizigiroa teinkatu zuen, nazioaren irudikapenekiko identifikazioa kinkan ezarriz. Ondorioz, arte adierazpen apurtzaileak etorri ziren, eta abangoardien eta experimentalismoaren ildoan lehengoen kuestionamendua nagusitu zen. Geroztik, aberria errepresentatzeko irudi berriek ez dute erresistentziako adostasunik bereganatu: euskal mundu sinbolikoan gertaturiko arrakalen lekuko bilakatu da sakabanaketa —eta, beharbada, noraez— hori.

Gisa berean, aintzat hartu behar da aberriarekiko irudikapenean iraganari buruzko hausnarketak garrantzia handia hartu zuela gudaoste osoan zehar, gerra galduaren dolua egiteko baldintzak oso zailak baitziren euskal gizartearentzat, diktaduraren errepresio eta zentsurak inguratuz. Horregatik, demokraziaren etorrerak hausnarketa kritikoa azaleratu zuen, eta ugariak dira 36ko gerrak markaturiko aberriaren irudikapenak. Izan ere, Albert Balcellsek (2008) dioenez, oroimenak eta historiak bi funtzio betetzen dituzte prozesu sozialetan. Oroimena askoz hurbilago dago aktibismo sozial edo politikotik eta emozioen zoruan mugitzen da, testigantzetan oinarritzen da eta artearen, errituen eta zeremonien bidez espresatzen. Diskurtso kulturala da memoria kolektiboa deritzoguna, banakako memoriaren transmisioa memoria sozialarekin lotzen duena, eta hor arteek funtzio bat dute memoriarekin (Jellin 2002:20).

Argi dago XX. mendearen azken laurdenean aberriaren irudikapen literarioetan utopia abertzalearen sinesgarritasuna ahuldu zela. Horrela, utopia abertzalearekiko bestelako hurbilpenak garatu zituzten idazleek, eta haien artean kidetasunak aurki genitzake. Lehenik, trantsizio idazleetan, hala Xabier Lete nola Ramon Saizarbitoriaren lanetan haustura kritikoa nabari da; erreferentzia gisa harturiko gudarien oroitzapenarekiko errespetua da ezaugarri bereizlea, eta diskurtso garaikideekin bat egin ezina. Bigarrenik, nazioaren irudikapen patriarkalarekiko genero disidentzia adierazten duten idazleak heldu dira, hala nola Amaia Lasa eta Itxaro Borda. Eta, hirugarrenik, aberriaren irudikapen prometeiko berri bat moldatu duten idazleak ditugu, hala nola Joseba Sarrionandia eta Koldo Izagirre. Jarraian, errepresentazio horien lerro nagusiak azaltzen saiatuko gara.

Letek 60ko hamarkadan abestu zuen, dagoeneko, aberriarekiko maitasun gatazkatsua: “Euskalherri nerea” abesti ezagunak, “Eusko gudariak” doinuan abesturik, aberriarekiko distantzia agertzen zuen, maite bai, baina adiskidetzeari lortzen ez zuen sentipen bat. Abesti haren kidekotzat har litezke, estiloz nahiz sentipenez, garai berean Espainia frankistan argitara emandako abesti zenbait; esate baterako, José Antonio Labordetaren “Aragón”. Baina, Letek aberriari eskaini zizkion poema eta abesti askoren artean, hemen *Urrats desbideratuak* (1981) azpimarratu behar dugu. Atxagaren *Etiopian* (1978) bezala, Leteren liburu horretan, poeta zurrunbiloan, espiralean mugitzen da, irtenbiderik ez duen espazio dantesko batean. Eta, Dantek Ravennako erbestetik Firenzeren gainbehera morala nola, Letek, bere erbeste existentzialetik, Euskal Herriaren urrats desbideratuak kantatzen ditu, bereziki, “heriotza utopi izendatu dutenei” zuzenduz. Leteri, izan ere, mingarria zitzaion indarkeriaren gorakada, eta horrek Euskal Herria aberri ilun bihurtzen zuen, *Unheimliche Heimat* bat, Sebalden 1991ko hitzekin esateko. Hain zuzen, 1991n, Arestiren poema gogoan, “Aberri ilunaren poema” eman zuen argitara Letek, indarkeriak egiten zion mina abestuz.

Hala Leteren nola Atxagaren trantsizio garaiko poema liburuetan labirintoa, noraeza eta espirala nagusitzen badira ere, urteek aurrera egin ahala euren proposamenek beste bide batzuk hartu zituzten (ikus Otaegi 2013 eta Gurrutxaga 2021). Letek aberria poetikoki habitatu beharra iradoki zuen (Gurrutxaga 2020, 233-239). Haren ustez, lurralde fisiko eta mentala da aberria, eta poetikoki habitatu behar da. Horrela, Hölderlinen bidera itzultzen da Lete. Atxagak, berriz, munduari zabaldua dagoen hiriaren ideia garatu zuen. Ildo horretan, Leteren kontzepzioa lurraldearen aprehentsio dinamiko batean oinarritzen da, Lehnertek (2011) adierazi zuen moduan, espazioak hari erreparatzen dionaren pertzeptioaz hitz egiten baitigu, eta gizakion gizarte moldatze eta sinbolizatze ekintzen berri erakusten. Modu honetan, Lete diskurtso politiko garaikideetatik urruntzen da, eta lehen hurbilketa teoriko eta

kulturaletara itzultzen, Lizardi edo Baroja bezalako autoreek inspiratutako naziora. 1992an, aberriari eskainitako hiru poema argitaratu zituen Letek. Haietan aitaren etxearen eta gure arbasoen baratzearen kontzeptuak berridazten ditu, ateak zabalik dituzten espazio babesle gisa marraztuz. Bestalde, Letek nazionalismoaren —eremu politikokoa— eta abertzaletasunaren —eremu kultural eta poetikokoa— artean egiten duen banaketak del Valleren azalpena gogorarazten du (2007); hau da, nazio politikoa vs. kulturala. Ataka horretan, Letek, maximalismo politikoei ihes egin nahian, poeta modernistarengana jotzen du, Lizardi bezalako poeten bidez lurralde kolektiboaren bizipen poetiko hunkitua bilatuz.

Hamarkada berean, Ramon Saizarbitoriak *Aberriaren alde eta kontra* (1999) emandako argudioak aurkeztu zituen, fikzio lanetan ez ezik, saiolan batean. Iturri eta gai historikoei helduz gero, bi dira Saizarbitoriaren testuetan nabarmentzen diren oroimen lekuak: Gerra Zibila, lehenik, eta gero ETaren borroka armatua. Berez, bi gaien arteko zubiei buruzko hausnarketan dihardu sarritan bere eleberrietan: hau da, gudarien eta ETAko militanteen arteko ezberdintasunaz. Bereziki azpimarragarria da Saizarbitoriaren eleberrietako bat, Lizardiri harturiko “Asaba zaharren baratza” izenburua daramana (*Gorde nazazu lurpean* 2000). Historia horretan aita-emeak dira protagonista. Aitak, EAJko buruzagietako baten txoferra zenak, Sabino Arana-Goiriren behatz-hezur bat gorde zuen, buruzagi abertzalearen hezurak Bilbo erori baino lehen lekuz aldatzea erabaki zutenean, profanazio faxisten beldurrez. Semeak, berriz, aitaren agindua eta jarauntsia jaso ditu: euskal historiaren zatitxo baten ondare deserosoa utzi dio aitak, eta berak bere lekura itzultzea erabakitzen du. Errespetuz, baina itsasoan ehortziz, ondare hura eta bere burua oroimenaren zamatik arintzen ditu. Esan liteke aberriaren aldeko eta aurkako argudioak fikzionalki garatzen direla *nouvelle* horretan. Aitaren bidezko oroimen historikoaren berreskurapenari argudio sozialak jartzen zaizkio kontra —klase gatazka barne—; begirada kritikoz lantzen da oroimen historikoa, aitortzarekin batean historiaren alderdi ilunagoak aurkeztuz; eta maisu abandotarraren sinbolismoari buruzko hausnarketa interesgarriak eskaintzen dira.

Beste ildo batetik, XX. mendean zehar mamituriko irudikapen nazional abertzalearen inguruko kritiketan, idazle feministek nabarmen identifikatzen dute nazioaren eraikuntza aitaren leinuaren irudiarekin. Izan ere, Noguék argi adierazi bezala (1998:21), “hay pocas dudas sobre la íntima conexión entre la retórica nacional y los valores machistas-patriarcales”. Nazionalismoa, euskal nazionalismoa barne, maskulinitzat hartu izan da, emakumearen ahalduntzearen aurkako ideologiatzat, eta nazionalismoaren ikerketak ez du emakumeen parte-hartze eta ekarpenei buruzko aipamen handirik jaso izan XX. mendearen bukaera arte. Horregatik, ez da harrizkoa emakume idazleek, hala nola Amaia Lasak edo Itxaro Bordak, sendoki agertarazi izana zein zaila zaien, emakume bezala, euren burua identifikatzea euskal nazioaren identitate sinbolo gisa sorturiko zuhaitzaren, etxearen edota baratzearen sinboloekin. Lasak, esaterako, 1971ko *Poema bildumatik* hasita, gizonezkoek moldaturiko aberriaren lurralde kontzeptuala eta haien kodea arbuatzen ditu “Nereak ez diren” bezalako poemetan. Emakume idazlea kode berri bat asmatzera behartua dago, beraz, gizonezko poetek moldaturiko irudi baten barruan bizitzeari uko eginez. Borda, berriz, bereziki ironikoa da “Herria non grata” poeman (*Zure hatzaren ez galtzeko* 2014:68-73), erreferentzia zuzena eginez Arestiren poeman irudikaturiko aberriaren errepresentazioari: “Ez duzu etxerik / Nahi / Ez duzu aitarik / Nahi...” (2014:71). Izan ere, ez Lasak eta ez Bordak ez dute beren burua barne bildurik ikusten iraganetik datozen errepresentazio haietan, eta, ondorioz, uko egiten diote subordinatu ezjakin eta ahantzi gisa hartzen dituen errepresentazioarekin bat egiteari.

Gai honi buruzko genero ikuspegi zentratu bat garatzen ari da gure ikerlanetan, eta lan honen neurriak ez digu gai hau sakonago aztertzen uzten. Orain artean gai honi buruz egin diren lanen artean, interesgarriak dira, besteren artean, Gema Lasarteren doktore tesia (2013) edota Maite Núñez-Beteluk egindakoa (2001), euskal emakume idazleen eta nazio eraikuntzaren ingurukoa. Bere ikerketan, Missouriiko Saint-Louis Unibertsitateko irakasleak emakume euskaldunek beren nazioari buruz zuten ikusmoldea azaltzen du, bereziki haien literatur sorkuntzetan islaturikoa. XX. mendean zehar emakume

idazleek idatzitako hainbat lanetan zentratzen da, eta nazioari buruz duten ikuspena aztertzen du, baita Euskal Herriak berentzat irudikatzen duten lekua eta papera ere. Núñez-Beteluk argitaratu du, gisa berean, “Euskadi-Venezuela: berezko kritika poetikoa” artikulua, Linda White eta Cameron Watsonek argitaraturiko *Amatxi, Amuma, Amona: Honor of Basque Women* (2003) liburuan; bertan, Balendiñe Albizu poeta erbesterratuaren ekoizpen poetikoa aztertu, eta ondorioztatzen du naturaren metafora erabiltzen duela, hau askatasunaren espazio den neurrian, euskal independentzia lortzeko.

Aitaren etxearen sinbolismo nazionalaren ibilbidea sakonago aztertu behar delakoan gaude, eta ikerketa horretan aurrera egiteko ezin dute falta, besteak beste, Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019) eta Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019) lehen planora ekarriko dituzten azterketak¹³. Izan ere, Bordaren nobelak gatazka politikoaren ekintza bortitza eta generoaren bidegurutzeak jorratzen ditu. Aldiz, Jaioren nobelak azaleratzen du nola eragiten duen generoak pertsonengan, eta argi ikusten da subjektuak, genero irudien sare horretan kateatuta daudenez, horren arabera jokatzera behartuta daudela. Aitaren eta maskulinitatearen kuestionamenduan zentratzen da eleberria, eta ez dira hutsalak boterearekiko eta nazio irudiarekiko konexioak, patriarkatuaren eta nazio egituren eduki generikoez hausnartzen jarraitzeko. Ikerketa sakonagoen aiduru, Bordaren eta Jaioren eleberriek ikerketa ildo honen emankortasunaren lekukotza bizia ematen dute. Hala, bidean diren ikerketek ari garela, ez genuke aipatu gabe utzi nahi UEUK 2021ean antolaturiko “Gatazkaren irakurketa feministak: fikzioak, diskurtsoak, errealtateak” jardunaldien emaitza: Ibai Atutxa eta Iratxe Retolazak editaturiko *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: Gatazka armatuaren irakurketa feministak* (2022).

Oso bestelakoa da aberria Joseba Sarrionandiarentzat, urte luzez erbestean bizi izan den poeta batentzat, euskal historia galtzaileen historia baita funtsean. Izan ere, haren obran eraikitzen den nazioaren kontzeptua estuki loturik dago Euskal Herriaren dimentsio historiko eta politikoarekin. Eiglerrek eta Kugelek (2012:30) azpimarratzen duten bezala, *Heimataren* irudikapenek, galeraren eta nostalgiaren narrazioak barne hartzen dituztenez, literaturan eta zineman agertzen diren hurbilpenak oroimen eta trauma arazoetan zentratzen dira. Hala, Sarrionandiaren literaturan, aberriaren aldeko borrokak dimentsio liriko hartzen du: batzuetan espazio sinbolikoetara eramaten gaitu, sarritan sortetxea eta familia orotzapenei lotuta; baina, batez ere, itsas nabigaziora, hots, borroka iraultzailearen esparrura. Sarrionandiarentzat, izan ere, itsasoa da bide bakarra, eta nabigatzea militantzian irautearen pareko da (Rodriguez 2014). Horrela, etxeko edota norbere lurraldeko babesetik urrun dagoen herri-protagonista hautatzen du subjektutzat. Baina Sarrionandiak nabigazioaren epopeia eskatzen du, “Itxasora!” deiari erantzutea, Estepan Urkiaga “Lauaxeta”k 1930eko poema enblematikoan egin zuen bezala (ikus Otaegi 2005). Adibidez, *Marinel Zaharrak* (1987) lanak itsas abenturen tradizio erromantikoa gogorarazten digu izenburutik beretik; hitzaurrean, ordea, Sarrionandiak euskal poesia itsasertzean kokaturiko piraten ostatu batekin alderatzen du, non olerkaria poesia idatzi behar duen pertsonaia bezala agertzen baita, baina, hala ere, egoera latzari aurre egin behar diona eta beti nabigatzeko prest dagoena.

1991n, Iñaki Aldekoak itsasoaren eta basamortuaren sinbolismoa aztertzen zituen saiakera bat plazaratu zuen¹⁴, Sarrionandiaren poesiako itsaso erromantikoaren gaian sakonduz, W. A. Audenen itsasoaren ikonografia erromantikoari buruzko lanean (1950) oinarrituta. Literatura klasikoko itsasontzien konnotazio teorikoak jorratu zituen, metaforikoki gizartearentzat nolabaiteko arriskua sinbolizatzen zutenak, oro har. Sarrionandiaren kasuan, aldiz, marinelak itsasoratzen eta borrokatzen dira, eta galdu egiten dute. Izan ere, Sarrionandiak irudikatutako *Heimat* hori gatazkan dagoen herrialdea da, etengabeko eztabaidan murgildua. Eta, horrelakoa denez, itsas zabaleko segurtasun eza eta ezegonkortasuna dakartza. “Harriak eta herriak” poemari, berriz, Gabriel Arestik idatzitako liburu

¹³ Ikus, ildo horretan, Lasarte, G. eta Perales, A., “Karmele Jaioren Aitaren etxearen kritika kolektiboa eta feminista: proposamen metodologiko berritzailea” (*Fontes linguae vasconum*, 2021, 132.zk., 497-514).

¹⁴ Artikulu hura, moldatuta, *Zirkuluaren hutsmina* liburuan azaldu zen gero: “Itsasoa eta basamortua” (1993:139-152).

ospetsuenari erreferentzia egiten dio, eta Sarrionandiak Arestiren baieztapenak zalantzan jartzen ditu: euskal idazleak ez du etxe sendo eta harritsurik, ez horma sendorik, baizik harri txiki bustiak sakeletan, atzerrian mugaz muga ibiliz bildurikoak, bere erromesaldiaren souvenir gisa. Poetak galdetzen du: “Gogoratzen duzu, galdu genuen aintzinako sorterri hura? / Harriak ditugu baina ez dugu herririk.” Galdera eta zalantzei erantzunik emango dienik ez dago. Nabigatzea beste aukerarik ez dago. “Itsaso debekatuak” olerkia izan zen, *Kartzelako poemak* bilduman integratua (1992), ikuspegi horren adierazpenik argiena, nabigatzailearen bidaiaren jatorri eta helburuei buruzko ziurgabetasun eta zalantzez betea.

Galdera honen erantzun gabeko beste alderdi bat Koldo Izagirrek osatzen du. Izagirreren poesian Euskal Herriaren historia ofizialari buruzko desadostasunak agertzen dira, beti ere oroimen historikoari loturiko erreferentzia ugari argudioetan murgildurik. Bere lanen izenburu ugari honekin erlazionatzen dira, hala nola *Euzkadi merezi zuten* (1984), *Nik ere Germinal egin gura nuen aldarri* (1998) edo *Parisen bizi naiz* (2013). Baina uste dugu aipagarrienak *Balizko erroten erresuma* (1989) eta *Non dago Basque's Harbour* (1997) poema liburuak direla. Lehenengoan dago Lauaxeta poetari eskainiriko omena eta hausnarketa, Gernikako herriaren suntsiketaren sinboloari loturiko poeta (Otaegi 2020a). “Lauaxetaren betaurrekoak” poeman suma genezake Gernikako Picassoren koadroan falta den euskaldunen “marka”ren aldarrikapena: “Baina poeta frantsesak ezin du ulertu / Picassoren oiholari poeta bat falta zaiola / Euskarazko oihu hori duela eskas / Lauaxetaren betaurrekoak”. Izan ere, Izagirrerenentzat, Gernika eta haren izenadaraman oihala oroimen-leku badira ere, euskal kulturaren suntsiketaren sinbolo den Lauaxetaren sinbolismoa falta zaio¹⁵.

Non dago Basque's Harbour (1997) liburuan, berriz, Izagirrek Sarrionandia oroitarazten duen oihua egiten du: “Portu hau zen nire aberria” (1997:118). Horregatik, Izagirreren izenburuko galdera itzuliz gero, argi ikus genezake bere disidentzia nagusia euskaldunon *Heimataren* ahanzturari buruzkoa dela, baita herri horren zorteari buruzko ezaxolaren salaketa ere. Izagirreren hamarkada hartako testuen ardatza oroimen historikoa da; hainbat dira Espainiako Gerra Zibilari lotutako alusioak, baita Gernikan egindako aire-erasoari eta nazionalismoaren historia modernoari eginiko erreferentziak ere, hala poesian nola fikzio narratiboan. Izan ere, esaterako, *Sua nahi, Mr. Churchill* (2005) ipuin liburuan gertaleku nagusia itsas portuaren ingurua da, itsasoari sinbolikoki portuko klase gatazka eta 36ko gerraren oroimena estekatuz. Izagirrek portuaren indar iradokitzailea erantsi dio itsasoaren metafora erromantikoari, indar handiko prosa lirikoaz garatuz nazioaren eta portuaren metafora.

Ikuspegi kritikoez ari garela, azken bi aipamen egingo ditugu, biak ala biak aberriaren errepresentazioa eta plano sozioekonomikoa edo klase ikuspegia uztartzen dituztenak. Batetik, aipagarria da Omar Nabarroren *Itsastxorien bindikapena* poema liburua (1985), non beste behin aurki dezakegun Arestirengandik jasotako aitaren etxearen irudia, baina kasu honetan kritika ironiko garaikide gisa moldatua. Poemak, narratibotasunaren eta lerro hautsien bidez, Aresti omentzen du, baina aldaketa klabe bat txertatuz: aitaren etxea banketxe bihurtua ikusten dugu. Irudi joko horren bidez, Nabarrok klase kritika zorrotza dakar poemara, eta ni poetikoak zuzenki adierazten du berak ez duela “inoren banketxea”, etxe endekatu hori defendituko. Uler bedi, gainera, lerro artean, Arestiren ideologia komunistatik kapitalismo garaikidera dagoen arrakala salatzen duela Nabarrok:

Aitaren etxean
dirua gordetzen denean
ez da gehiagorik
aitaren etxea
aitaren banketxea

¹⁵ Izagirreren poesian bada Gernikaren eta Berlinen arteko harreman sinbolikoan eraikitzen den testurik ere; gehiagorako, ikus Gurrutxaga 2016.

baino
eta
nik
ez dut
inoiz
inoren banketxea defendituko.

Bestetik, ia lau hamarkada geroago, ildo beretsuko poema txertatu zuen Iñaki Seguroiak *Ganorexia* (2022) liburuan, berridazketa joko antzekoa eginez. Kasu horretan ere, hipotestu-hipertestu harremanak Aresti dakarkigu zuzenean; eta, Nabarrorenean bezala, testu horretan ere etxea transformatu egin da, baina ez banketxe bihurtuz, baizik eta “aitatxoren abertxalet” bilakatuz. Hala, Seguroiak ironia kritiko bizkorrez seinalatzen du bere burua abertzaletzat daukan baina plano sozioekonomikoan liberalismo ekonomiko basati eta egoistan lerratua dagoen sektore soziala:

Nire aitaxoren abertxaleta
defendituko dut.
Okupen kontra,
gizartearen kontra,
okerkeriaren kontra,
xuxenkeriaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaxoren abertxaleta.

7. Utopia integratzaileak mende berrirako

Lete nahiz Saizarbitoriaren dikotomien paradoxak, Lasa eta Bordaren poemen disidentziak edota Sarrionandia eta Izagirreren barne-urradurak oroimenera ekarri dituzten irudikapenekin batean, bada mende berrian sinbologia berririk, bestelako esanahian mamituko denik; mendi, zuhaitz, harrizko etxe edota itsaso-portuetan baino, leku afektiboetan kokatzen denik. Hala, Bernardo Atxaga edo Kirmen Uriberen proposamenak azpimarra daitezke, eta aurreratu dezakegu arrakala soziopolitikoak elkarrekin gainditzeko bidea bilatzen duten utopia integratzaileak direla.

Atxagaren ekarpen sinbolizatzaileari dagokionez, eta, labur beharrez, esan dezagun bere lanetan era bateko eta besteko hurbilpen eta iradokizunak topa daitezkeela. Utopia sozial eta nazionalekiko desenkantua adierazi zuen Atxagak; baina, era berean, *Etiopia* aztertuz azaldu izan dugun moduan (Otaegi 2013), euskaldunentzat utopia berri batean kokaturiko aberriaren desiraren errepresentazioa eraiki hirian, euskarazko kulturaren laguntzaz, Bilboko hiriaren konkista kulturean. Urteek aurrera egin ahala, oroimenari (*Soinujolearen semea, Markak 1937*) eta gatazka politikoaren kausa-ondorioei (*Gizona bere bakardadean, Zeru horiek*) hainbat idazlan eskaini ondoren, beste errepresentazio eraikitzaile baten iradokizuna dugu hemen adierazgarriena: Euskal hiria. “Herria” —herri nahiz herrialde gisa uler daitekeena— eta “hiria” hitzen antzekotasuna baliatuz, Atxagak euskal komunitatearentzat Euskal Hiriaren utopia proposatu zuen. *Heimataren* ideia erromantikoa gainditzeko hiria iradoki zuen (*Lekuak 2005:47-54*), non gizarte sektore, talde eta era guztietako pertsonak egon daitezkeen elkarrekin, eta non kulturak, hizkuntzak eta identitate anitzak modu eraikitzailean kolaboratzen duten.

Jakina denez, Atxagaren proposamenak oihartzun mediatiko zabala izan zuen, eta zenbait ikuspegititik eztabaida piztu zuen, politikoki erabili ahal izateko irudi erakargarria baitzen: nazioaren esentzia etniko-

linguistikoak moderatu eta modernitateak eskatzen duen ezberdinen integrazioa sustatuz. Besteak beste, Xabier Montoia idazleak *Euskal Hiria sutan* (2006) izeneko ipuin laburren liburua argitaratu zuen, euskal gizartearen gaiei begirada sarkastikoa eskainiz, Atxagaren proposamenarekiko kontraste osoz. Bestalde, Joseba Gabilondok (2006, 2013) eta Ibai Atutxak (2012), ikuspegi postkolonialetik, irudi eraikitzaile horien eta euskaldun subordinatuaren arteko erlazioa iradoki izan dute. Nolanahi ere den, ikus dezakegu Atxagaren *Nevadako egunak* edota *Etxeak eta hilobiak* esentzialismoaren aurkako espazio metaforiko batean kokatzen direla, era bateko eta besteko jatorri, esperientzia eta izan-moduko protagonisten arteko harreman gurutzaketa baitira liburuetako mami. Lehenengoan gizarte amerikarraren indibidualismoak iradokitzen duen gogortasunaren aldean, bigarrenean, hausnarketa baikorra azaleratzen da gure gizartearekiko. Obabatik atereak dira protagonista asko, baina mundu errealean uhinetan bizia aurrera eramaten ikusten ditugun herritar horien garapenak ez du gertaleku eta denbora aldetik metafora sinbolizatzaile esentzialistatik iradokitzen. Heterotopietan garatzen dira gertaera gehienak —eskoletan, lantegietan, kuartel eta ospitaletan—, eta hor pertsonaien arteko harremanaren sarean elkarri kateatuak ageri dira pertsonaiak, bata bestearen beharrean, eta, gehienetan, elkarren laguntzan. Azken hori da, beharbada, liburuari darion xarma nabariena: haurtzarotik hilobirainoko gizakiz gizaki hedatzen den elkartasun sarearen utopia berria, euskal esentzialismotik eta bestearen arbuioetik sekula baino urrunago.

Kirmen Uriberen *Bar Puerto* (2001) ere proposamen integratzaile bat izan zen, espazio konpartitu baten inguruko utopiaren aurkezpena. Kostaldeko herri guztietan dago Bar Puerto deritzan taberna bat, “hara biltzen dira marinelak eta portuko langileak atsedean hartzeko. / Hango istorioak jasotzea, aspaldiko asmoa. / Istorioak asko baitira munduan eta gutxi batzuek ohartzen gara soilik. / Mundu guztiak dauka istorio on bat. / Bar Puerto Bazterreko ahotsak”. Sarrionandiak edo Izagirrek bezala, *Bar Puerto* itsaso mitikoan, hots, bizitzaren eta heriotzaren muga den espazio berezi horretan kokatzen bada ere, Uriberen testuak ez du ustiatzen abenturaren testuartekotasun erromantikoa. Aitzitik, portua egile errealean eta ni lirikoaren espazio biografikotzat aurkezten zaigu, literaturaren begiez. Uriberen Ondarroa izan daiteke, baina baita beste edozein herritako portu bateko taberna inpersonala ere. Iruditeriari dagokionez, 2006ko *Portukoplak* liburuak unibertso berbera dakarkigu: Uriberen imaginario literarioaren paisaia ageri zaigu, herri literaturaren esparrutik poesia garaikidera hedatzen dena, baina lehen formulazioa zen *Bar Puerton* beste eduki bat gailentzen da (Otaegi 2020b).

Uriberen itsaso/portu horren tratamendua begirada “neohiturista”tzat jo zuen Gabilondok (2009, 43-49), iraganeko oroitzapen malenkoniatsua omen delako bere poesien ardatza, baina eztabaidagarria da baieztapen hori. Uribek jasotzen dituen ahotsen jabeak pertsona errealak dira, izen eta abizenez ageri dira diskoan, eta euren ahotsen grabazioak entzuten dira performancean zehar. Beti aldakor den mundu baten istorioa kontatzen dute beren hitzekin; harat eta honat dabilen denbora baten lekukoak dira. Bazterrekoak dira, bai, baina hezur-haragizkoak, eta hemen, Euskal Herrian daude, Euskal herria osatzen dute guk bezainbat (Otaegi 2020b). Baztertuen testigantzak gaur egungo historiaren ikuspuntuari eginiko ekarpenaren kontzientzia adierazten dute. Izan ere, ikasketa postkolonialen arabera, subalternitateen ikasketan nahiz memoria ikasketetan gauzatzen da historia garaikidean funtsezkoa den aldaketa, *emotional turn* deritzanaren ondoriozkoa. Lider edo ideologoen ez ezik, edonork du hitza hartzeko zilegitasuna bere “istorioa”ren berri emateko. Denen ahotsak dira zilegi, eta *Bar Puertok* haien ahotsa entzunarazteko aukera hori eskaintzen du.

Bestetasunak integratzeko asmoaren erakusgarritzat har liteke, era berean, Uribek Arestiren “Nire aitaren etxea” erreferentetzat idatzitako poema, *17 segundo* liburuan: “Aitaren etxea neuk ere” (2019). Poemak, lehenik, aitortza sentitua egiten dio Arestiri, haren ausardia eta borroka sozial nahiz linguistikoa aintzatetsiz. Poeta garaikideak, gero, lotura egiten du, euskal idazle izateak dakarren berezitasuna zein den adieraziz: “larre motzean hazitakoak gara euskaldunak, / onerako eta txarrerako”; “beldurrez idazten dugu oraindik, / galtzeko beldurrez ala / irabazteko, beharbada”. Eragozpenen aurrean euskaraz idazten jarraitzeko konpromezua adierazten du Uribek, Aresti gogoan: hori da aitaren etxea defenditzeko bere

promesa. Baina, zalantzarik gabe, elementu interesgarrienak poemaren azken bi parrafoetan datoz; hara hemen azkenaurrekoa:

Dena den, utzidazu pixka bat desleiala izaten,
laga etxeari itxura aldatzen:
pintatuko ditut hormak kolorez,
altzari merkeak jarriko ditut han-hemen,
eta afariak egingo ditut lagun senegaldarrekin
kalean erositako janariaz gozatzen.

Horrela, Uribek diskurtso hegemonikoen itxikeria salatzen du, joera politiko jakin batzuen izaera monologiko gotorra, eta horien aurrean kanpora begiratzeko beharra aldarrikatzen: hori da bere desleialtasuna. Diskurtso modernistei joera postmoderno argiarekin erantzuten die Uribek. Bere proposamenari dagokionez, berriz, Letek 90eko hamarkadan egiten zuen bezala, ateak irekita dituen etxe bat marrazten du: horma zuriak ez ezik, koloretakoak ere izango dituen, altzari merkeak, eta ateak zabalik lagun atzerritarrekin kalean erositako janaria afaltzeko. Nolabait ere, ikuspegi horretan, Uribe bat dator Atxagaren hiriaren irudiarekin ere, bi espazioak planteatzen baitira kokagune ireki eta integratzaile gisa.

8. Azken hitza

Euskal Herriaren lehen irudikapen literarioak aberriari buruzko eztabaidan eta haren beharra argi eta garbi islatzen duten irudietan oinarritua dira. Gatazka-espazio batean garatu da irudikapena, zeinetan idazleek euskal tradizio modernoa birpentsatu, deseraiki eta ideia berriak eskainiz egokitu duten, hegemonia eskuratzeko borroka ideologiaren adierazle eta tresna izanik. Nazio garaikidea gatazka-espazio diskurtsibo gisa bizi da, *Heimat*, azken batean, kontzeptu konplexua baita, faktore askorekin lotua eta etengabeko tentsio dialektikoan murgildua, proposamenen eta erantzun gabeko —edo, behintzat, erabat ebatzi gabeko— galderen artean.

XIX. mende erromantikoan garatu eta Pizkundeko belaunaldikoek osatu zuten tradiziozko eta modernitateko osagaien lehen akumulazio sinboliko nagusia Foruen, euskararen eta abertzaletasunaren leku eta erritoez osatu zen, gehienbat Gernikako arbolaren irudi forala berridatziz eta asaba zaharren baratzearen sinbolismoaren bidez. Euskaldunen aberriaren iruditeria literario hori babesleku sendoa izan zen Arestiren aitaren etxea defendatzera deitu eta trantsizioak irekitako aukerek disidentziak adierazteko abagunea sortu zuten arte. Orduan heldu zen *heimata*ren tradizio modernoa birpentsatzeko unea, jasotako irudiak deseraiki eta proposamen berriak eginez. Planteamendu horietako batzuk deserosotasun pertsonal eta sozial batean oinarritzen dira, oinarritzko dikotomiatik sortzen dena: aberria maitatzea zaila da, maite den hori oso bestelakoa izatea nahi bada. Aipatu ditugun disidentzietan, aberriaren maitasuna ospatzeko ezintasuna Euskal Herriko egoera historiko eta sozialetik dator zuzenean, dela diktadura frankistaren zapalketarengatik, dela ETAREN borroka armatuak eragindako bidegabekeriengatik. Nolanahi ere den, ondorioa aberriaren irudikapen ezkorra bilakatzea da: Arestiren hitzetan “aberi iluna”, Leterentzat osoki maitatu ezina, Saizarbitoriarentzat errespetuz eta amorruez, lehenminez eta higuinez betetzen zuen aberria. Edonola ere, dikotomia paradoxikoa adierazten duten idazleok —“Euskalerrri nerea ezin zaitut maite”— beren ahaleginaren motibazio nagusia asetzen ez dituen aberri horixe bera dute, portu abegikorren desira amaiezin horixe bera. Hain zuzen, azpimarratu behar da Arestik, Saizarbitoriak edota Letek proposamen bat egiten dutela iluntasunetik argirantz egiteko. Gabriel Arestik modu iradokitzailean idatzi zuen bezala, “neke handitan bizitza suportatzea honela / holaxen korri dadin odola nire zainetatik / eskribatzeagatik”.

Hein berean, ordea, izan dira nazioaren faktore objektiboak azpimarratu dituzten diskurtsoak ere, eta horien artean hizkuntza, lurraldea, historia eta memoria aipatu beharko genituzke. Koldo Izagirrek eta Joseba Sarrionandiak hurbilpen horien adibide onak ematen dizkigute, baita Omaer Nabarrok ere, esanezin bilakaturiko indarkeriaren memoriaren oinazea adieraziz. Eigler eta Kugele jarraituz (2012:5), esan genezake aberria espazioaren, oroimen kolektiboaren eta dagokion espazioaren konstelazio partikularizat hartzen dutela eta, Smithen ideia etnokulturalaren arabera, aberriaren eraikuntzan faktore objektiboek duten garrantzia jasotzen.

Mende berrian, ordea, auzi identitarioaren utopiei errealitatea inposatu zaie, eta hainbat autorek iradokizun eraikitzaileak egin dituzte nazioaren faktore subjektiboak kontuan hartuz; adibidez, Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga, Xabier Lete edo Kirmen Uriberenak aipatu litezke. Izan ere, lurraldetasun kontzeptutik harago egiten dute; Leteren arbasoen sorteriaren ideiak, Atxagaren Euskal Hiriarenak edo Uriberen *Bar Puertokoak* eta etxe berrituarenak alteritatea integratzen duten proposamen abegikorrak izan nahi dute. Baumanen hitzekin esateko (2003:7), munduan ikusten duten liskar eta etsaigo giroan, espazio babesle gisa eraikitzen dira. Horrela, *Heimat* ireki eta malgu bati buruz hitz egiten dute, elkarbizitzarako eta adiskidetzeko desira bezalako faktore subjektiboetan oinarritutakoari buruz. Inondik ere, ez da kasualitatea Letek Gianni Vattimoren pietatearen ideia berreskuratzea aberriaz hitz egiteko (Gurrutxaga 2020).

Aurreko lerroetako hausnarketek aukera eskaini digute Euskal Herriaren errepresentazio sinbolikoetan garatu diren euskaldunen ilusio, desilusio eta itxaropenen ibilbideari erreparatzeko. Erromantizismo garaitik gaur arte, mende eta Erdiko garapenean, literaturan islatutako errepresentazioen bidez, aukera dugu euskal gizarteak gizarte-eredu industrial, moderno eta hiritarrari molde soziopolitiko propioa emateko egin duen ahaleginaz pentsatzeko. Muzin egin ezin zaion ekonomia irekiaren legeari egokitu gatazka, tradizioa eta modernitatea elkartzeari uko egin gabe, eta era berean gezurtatu gabe euskal errealitatea askotarikoa dela; hain zuzen, orain, askotariko bizi-esperientzia sozialek eta ideia politikoek, eta jatorri nahiz genero ezberdinek garatu dituzten unibertso sinbolikoak integratzeko utopia berriari egiten dio aurre euskal kulturak, elkarbizitzaren bitartez. Erroka horri dagokion errepresentazioa da gure mendeko literaturaren zeregina: proiektu berri horren nondik norakoak imajinatzea.

9. Bibliografia

- AIZPURU, M.; PORTILLO, J.M. (2015) "Provincia, nación y patria El tratamiento de las identidades en la historiografía vasca", *Huarte de San Juan*, Geografía e Historia 22, 67-88.
- AIZPURU, M. (2006) "Modelos de movilización y lugares de la memoria en el nacionalismo vasco. Los límites de una cultura política", *Historia y política* 15, 117-146.
- ALDEKOA, I. (1991) "Itxasoa eta desertua", *Plazara* 18, 1991-1992 negua.
- . (1993) *Zirkuluaren hutsmina*. Irun: Alberdania.
- ÁLVAREZ, J. I. (2007) *Memoria y trauma en los testimonios de la represión franquista*. Barcelona: Anthropos 2007.
- ANDERSON, B. ([1983] 1993) *Comunidades Imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Mexiko: FCE.
- ATUTXA, I. (2012) *Kanonaren gaineko nazioaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- ATUTXA, I.; RETOLAZA, I. (2021) *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: Gatazka armatuaren irakurketa feministak*. UEU.
- AUDEN, W. H. (1950) *The enshafed Flood; or, The romantic Iconography of the Sea*. New York: Random House.
- BALCELLS, A. (2008) *Llocs de memoria dels catalans*. Barcelona: Proa.

- BAUMAN, Z. (2003) *Comunidad: en busca de seguridad en un mundo hostil*. Madrid: Siglo XXI.
- CÁCERES, P. (2013) *Memoria, lenguaje y trauma en la obra de Felix Grande*. Madrid: Carpe Noctem.
- DE LA ENCINA, R. (2004) *Poder y comunidad. Una sociología del nacionalismo*. Iruñea: Pamiela.
- DE PABLO, S. ET AL. (2012) *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madrid: Tecnos.
- DEL VALLE, J. (2007) "La lengua, patria común: la hispanofonía y el nacionalismo panhispánico", Del Valle (ed.) *La lengua, ¿patria común? Ideas e ideologías del español*. Madrid, Frankfurt am Mein: Iberoamericana eta Vervuert, 31-56.
- EIGLER, F. (2014) *Heimat, Space, Narrative: Toward a Transnational Approach to Flight and Expulsion*. New York: Camden House.
- EIGLER, F.; KUGELE, J. (ed.) (2012) *Heimat: at the Intersection of Memory and Space*. Berlin: De Gruyter.
- ESPARZA, J. M. (2020) *Biografía del Gernikako Arbola: Himno de Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta.
- GABILONDO, J. (2006) *Nazionaren hondarrak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua.
- . (2009) "Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: ahokotasunaz eta performantzeaz", *Egan* 3-4, 2009, 5-52.
- . (2013) *New York - Martutene*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua.
- GEISLER, M. E. (2009) "The Calender Conundrum: National days as unstable signifiers", D. McCrone eta G. McPherson *National days. Constructing and mobilising national identity*. New York: Palgrave-Macmillan, 10-25.
- GELLNER, E. ([1983] 2008) *Naciones y nacionalismo [Nation and Nationalism]*. Madrid: Alianza.
- GURRUTXAGA, A. (2013) "Modernismoaren zantzuak Antonio Arrutiren poesian", *Euskera* 58: 2 (2013), 721-751.
- . (2016) "Gernika-Berlin: Berlinen balio sinbolikoak euskal poesia garaikidean", L. Otaegi & I. Arroita *Oroimenaren lekuak eta lekukoak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua.
- . (2020) *Xabier Lete, aberriaren poeta kantaria*. Irun: Alberdania.
- . (2021) "Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak", *Jakin* 242, 2021 urtarrila-otsaila, 71-88.
- HARITSCHELHAR, J. (2000) "Gernikako Arbola véritable hymne basque", *Lapurdum* 5, 2000. Online: <http://lapurdum.revues.org/1332> [azken kontsulta eguna: 2023/6/6].
- HOBSBAWN, E. ([1992] 1995) *Naciones y Nacionalismo desde 1780*. Bartzelona: Crítica.
- JELLIN, E. (2002) *Los trabajos de la memoria*. Madrid: Siglo XXI.
- JUARISTI, J. (1987) *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*. Madrid: Taurus.
- LASARTE, G. (2013) *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua.
- LASARTE, G.; PERALES, A. (2021) "Karmele Jaioren Aitaren etxearen kritika kolektiboa eta feminista: proposamen metodologiko berritzailea", *Fontes linguae vasconum*, 132.zk., 497-514.
- LEHNERT, G. (ed.) (2011) *Raum und Gefühl: Der Spatial Turn und die neue Emotionsforschung*. Bielefeld: Transcript.
- LUENGO, F.; ZENDAGORTA, A. (2015) "El árbol de Gernika. Vicisitudes del símbolo foral de los vascos", *Historia y política* 15, 23-44.
- MEES, L. (2012) "Movimientos sociales, nacionalismos vascos", "Gernika", "Euskal Herria/Euskadi", en De Pablo, S. et al., *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madrid: Tecnos.
- MONREAL, H. (2016) *Mendi literatura: narratiba biografikoaren azterketa konparatiboa*. Doktore tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- NABARRO, O. (1987) "Hamaika urte, hamar liburuki, bederatziz ohar....", *Susa* 21, 17. Online: <https://andima.armiarma.eus/susa/susa1914.htm> [azken kontsulta eguna: 2023/6/6].
- NOGUÉ, J. (1998) *Nacionalismo y territorio*. Lleida: Milenio.
- NÚÑEZ-BETELU, M. (2001) *Género y construcción nacional en las escritoras vascas*. Columbia: University of Missouri.
- . (2003) "Euskadi-Venezuela. Natural Poetic Rapprochement", L. White, C. Watson *Amatxi, Amuma, Amona: Writings in Honor of Basque Women*. Reno: University of Nevada, Center for Basque Studies, 119-133.

- OLAZIREGI, M. J.; OTAEGI, L. (2011) "La representación del bombardeo de Gernika en la literatura vasca", M. J. Olaziregi (ed.) *Literaturas ibéricas y memoria histórica*, RIEV 8, 40-61.
- ORMAETXEA "Orixe", N. (1927) "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra". Online: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/O/OrixeEdesti.htm> [azken kontsulta eguna: 2023/6/6].
- OTAEGI, L. (2005) "Odiseu barri gara", J. Kortazar (ed.) *Esteban Urkiaga Lauaxeta (1905–1937)*. Bilbo: Egan, 83-106.
- . (2009) "Hiru gizon bakarka", EHUren argitalpen digitala. Hemen kontsultagarri: <https://www.ehu.eus/ehg/literatura/?p=585> [azken kontsulta eguna: 2023/6/6].
- . (2013) "Distopia eta paradisia Euskal Hirian: Bernardo Atxagaren Etiopia makrotestuaren irakurketa semiotikorako hausnarketa kritikoak", *Lapurdum* XVII, 109-173. Online: <https://journals.openedition.org/lapurdum/2425> [azken kontsulta eguna: 2023/6/6].
- . (2018) "Gabriel Arestiren poesia zentsuraren aurrean. Isiltasun garaietarako kodea", *Euskera* 2018 2, 2. Bilbo: Euskaltzaindia, 789-827.
- . (2020a) "Paisaia zubiekin. Guda zibilaren isladura poetikoak", *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, 429-456.
- . (2020b) "Kirmen Uriberen obraren irakurketa Bar Puerto proiektu multimediatik abiatuak", M. J. Olaziregi, M.J.; A. Elizalde (ed.) *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, 159-182.
- OTAEGI, L. & GURRUTXAGA, A. (2017) "Where is Basque's Harbour: From the Old Heimat to the Space of Conflict", G. Iztueta, M. Saalbach, I. Talavera, C. Bescansa, J. Standke *Raum – Gefühl – Heimat. Literarische Repräsentationen nach 1945*, 2017. Marburg: Verlag Literatur Wissenschaft, 283-298.
- . (2023) "Itxaropenako artxibategiko altxorak: Gabriel Arestiren bi liburuen makinizkribuak", D. Lindemann (arg.) *Miren Azkarateri esker onez*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua, 225-242.
- PRESTON, P. ([2007] 2011) *El holocausto español. Odio y exterminio en la guerra civil y después*. Madrid: Debate.
- RODRIGUEZ, E. (2014) *Itsasoa da bide bakarra*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- SEBALD, W. G. ([1991] 2005) *Pútrida patria*.artzelona: Anagrama.
- SMITH, A. ([1986] 2013) *The ethnic origins of nations*. Oxford: Blackwell Publishers.
- . (1997) *La identidad nacional*. Madrid: Trama.
- . (2000) *Nacionalismo y modernidad*. Madrid: Istmo.
- THIESSE, A.-M. ([1999] 2010) *La creación de las identidades nacionales*. Madrid: Ensenada de Ézaro.
- WHITE, L.; WATSON, C. (2003) *Amatxi, Amuma, Amona: Writings in Honor of Basque Women*. Reno: University of Nevada, Center for Basque Studies.
- ZELAIETA, A. (2000) *Gabriel Aresti. Biografía*. Zarautz: Susa.